ASTEKARIA - 2010eko martxoaren 18an - XIII. urtea - Usurbil, 401. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua!!



"Usurbilgo Ituna" aurkeztu da



# Imanol Agirretxek eta Realzaleek igoerarekin amesten dute










txinparta

sagardotegia

Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak

Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00

## Albistea iruditan !!

# Trena Zubietaraino luzatzeko proposamena

Topoa Zubietara heltzeko dagoen aukera aztertzea eskatu zion lehengo astean Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritzari, baina alkate Odon Elorzak zioenez, "inolako exigentziarik gabe". Elorzaren esanetan, zerbitzu berria egokia litzateke hipodromoko eta Real Sociedadeko instalazioetako erabiltzaileentzat, eta baita Zubietan eraiki asmo dituzten 1.500 etxebizitzetako bizilagunentzat ere. Zubietako eskaera, *Topoa* eraberritzea argudiatzeko Donostiako Udalak prestatu duen adierazpen instituzionaleko bost puntuetako bat da. Testua Donostiako gobernu taldeak onartu zuen.

Gaur egun, EuskoTren Lasarte-Oriaraino ailegatzen da.



KOSTALDEKO TRENA USURBILGO LURRETAN, ZUMAIARAKO NORABIDEAN.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

BURUJABETZARI BURUZKO JARDUNALDIAK — 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN — 6. OR.

BADATOR JUBILATUEN ASTEA — 8. OR.

IMANOL AGIRRETXEREKIN SOLASEAN — 12. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!!
EUSKARAZ

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza











JOXE PIÑAS

# Haitiko mirariak

Haitin izan den lurrikararen ondorioz milaka hildako eta zauritu gertatu dira eta bertako pobrezia areagotu da ere. Egun batzuetan lurrikara harek Haiti munduko protagonista bihurtu zuen, tamalezko protagonista. Suntsipen erditik tarteka berri onak iristen zitzaizkigun, eraikin hondakinetik pertsonak bizirik erreskatatzen zituztela ikusten baikenuen. Lurrikara gertatu zenetik hamar egun baino gehiago pasa eta gero, ia sinestezina zen pertsona bizirik aurkitzea. Komunikabideen hitzetan, adituen arabera lurrikadatik bost egun pasa ezkero oso zaila dela norbait bizirik aurkitzea adierazten zuten. Eta honi mirari deitu zioten: gaur mirari bat izan da, bihar beste mirari bat izango da, hurrengo egunean bi,... itxuraz, Haiti lurralde suntsitu batetik lurralde santura pasatzen ari zen. Hausnarketarako tartea ematen dit honek.

Lehenengo hausnarketa zera da, erreskateko adituak ez ziren hain aditu edo bestela komunikabideak gaizki informatuta zeuden. Beste puntu batetik ikusita, eta gogorra izanda ere, bost egun pasata pertsonak bizirik topatzeko aukerak murriztuz gero (baina ez desagertuz), lehentasunak beste batzuk direla zirudien: izurriteak saihestea, oinarrizko zerbitzuak berriro martxan jartzea, erdi botata dauden eraikinak segurtasun arrazoiengatik guztiz botatzea,... Baina azpimarratzekoa da, Haitiko lurrikara kasuan, komunikabide askok jokaera kritikagarria izan dutela, berria ikuskizun bat bezala landu dutelako, eta mirari batek ikuskizuna janzten du.

Honekin lotuta, beste hausnarketa datorkit burura: tragedia kolektibo baten aurrean komunikabideek "mirarien" bidez alde indibidualak goraipatzen zituzten eta Haitiren herri desegituratuaren irudia indartzen zuten. Honek, ez al du zerikusirik AEBko okupazioa justifikatzeko kanpainarekin?

Sarritan, horrelako ezbeharretan Jaunaren izena aipatzen da... Noski, halakoetan Jaunak ez dauka inongo erantzukizunik, ezta pertsonek bizirik ateratzea lortzen dutenean. Halako ezbeharretan pertsonak beraien ahaleginen bidez edota harrapatuta gelditu diren tokien baldintzengatik, bizirik ateratzen dira: arnas hartzeko zirrikitu bat dago, janari topatu dute, sapaia zutabe batek mantentzen du,... Esate baterako, zazpi egun pasata Puerto Principeko katedraleko hondakinen tartetik bizirik atera bazen amona hura, ez al da izango suhiltzaileek ura ematea lortu zutelako? Ez zen mirarik izan.

Haiti, Amerikako herri txiroena izateak tragedia larriagotu du: ez ziren hainbeste hildako egongo eraikinek zimendu sendoagoak izango bazituzten. Eta kasu honetan bai, Haiti hain txiro izatearen erantzukizuna gizakiarena da.

1804. urtean Amerikako independentzia lortu zuen lehenengo herria izan zen Haiti, eta ez zen mirari izan, duintasun aldeko borrokaren fruitua baizik.

Beraz, ez dago mirarik, ez dago Jaunaren madarikaziorik; gizakiaren ardura dago eta gizakiaren duintasun aldeko lorpena egongo da.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - **Joxe Piñas** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# Hogei mintzalagun, euskara ahotan hartzeko prest

**Gustuko ekintzak eginez, euskararen erabilera bultzatzea da Mintzalagun egitasmoaren helburua. Usurbilen martxan jarri berri dute, eta hogei lagun parte hartzera animatu dira jada.**

AEK Etumeta euskaltegiak, Udalak eta NOAUA!-k abiatu duten ekimenerako hitz egiteko gogoa eta astean ordubeteko tartea baino ez dira behar. Hortik aurrera, euskara ikasleek edota euskaldun zaharrek guztiek parte har dezakete Mintzalagun egitasmoan, martxoaren 11n ekimeneko eragileek Artzabalen burutu zuten aurkezpen ekitaldian gogorarazten zutenez.

Harreman sareak edota euskara erabiltzeko esparru berriak sortzea bultzatu nahi da Mintzalagunen bidez. Eta erronka hori betetzeko ardura, aipatu zutenez, erakundeena eta herritar bakoitzarena da; izan euskaldun berri, izan euskaldun oso... Eragileek jendaurrean gaineratzen zutenez, denek baitute zer eman eta ikasia.

Horren lekuko izango dira, oraingoz egitasmoan izena eman duten hogei mintzalagunak. Lehen taldeak osatu eta biltzen hasiak dira. Ekimenean parte hartzeko izen emateak zabalik jarraitzen du halere: 943 372 001 eta 943 360 321 telefono zenbakietan edota usurbil@aek.org posta elektronikoan.



IRUDIAN, MINTZALAGUN EGITASMOAREN AURKEZPEN EKITALDIKO UNEA.

## Alkartasuna kooperatibaren batzarra

Martxoaren 28an igandea, Sutegin. Lehengo deialdia goizeko 9:00etan; bigarrena 9:30ean. Bazkide guztiei luzatu zaie gonbitea.

# Burujabetza eta estatalitatea hizpide

## Nafartarrak Kultur Taldeak hainbat hitzaldi antolatu ditu

**Bost hitzaldiz osatutako ikastaroa antolatu du Nafartarrak Kultur Taldeak, Nabarralde eta Udalarekin batera, burujabetza eta estatalitatearen inguruan. Lehenengo saioan, martxoaren 18koan estatu independente baten bideragarritasuna jorratuko dute. Gainerako lau saioak ekainera bitarte burutuko dira. Iaz, independentziaren historia ezagutzeko aukera eskaini bazuten, aurtengoan egungo egoera aztertu eta etorkizunari begira jartzea proposatzen dute antolatzaileek.**

Martxotik ekainera izango diren hitzaldiak udalbatza aretoan aurkeztu zituzten hilaren 10ean antolatzaileek; Nafartarrak Kultur Taldeak, Nabarraldek eta Udalak.

**HITZALDI SORTA**

"Egungo egoerari buruzko gogoeta egiteko parada eskainiko dute hitzaldiok, aurrera begira jartzeaz gain"

Independentziaren historia jorratu zen iaz, Nafartarrak-ek antolatutako ikastaroetan. Aurtengoaren aurkezpen saioan parte hartu zuen euskara eta kultur arloko zinegotzi Nerea Erauntzetamurgilek iaz egitasmoak izan zuen parte hartze jendetsua gogorarazi eta aurtengo saioek ere hausnarketarako aukera emango dutela iragarri zuen. "Oso aberasgarria izango da herri osoarentzat", adierazi zuen udal ordezkariak.



IRUDIAN, BURUJABETZA ETA ESTATALITATEARI BURUZKO HITZALDIEN AURKEZPEN EKITALDIA.

Ildo beretik, egungo egoerari buruzko gogoeta egiteko parada eskainiko dute hitzaldiok, aurrera begira jartzeaz gain. Iragana jabetzeaz ondo dago baina Nafartarrak Kultur Taldeko ordezkari Jexux Agirresaroberen esanetan, aurrera pauso bat eman nahi zuten 2010ean eta ikastaro sorta hau planteatu. Bere hitzetan, "etorkizuneko hitzaldiak izango dira".

Nabarraldeko ordezkari Angel Rekaldek hitzaldietako edukia aurreratu zuen. Hautatutako gaiak, lantzea beharrezkoak direla eta oso gutxi tratatuak daudela adierazi zuen. Estatu independente baten bideragarritasuna, globalizazioa, ekonomia krisia, euskal gizartearen kultura politikoa edota asimilazio politikoa dira hitzaldi banatan lantzea proposatzen dituzten gaiak.

## Lehen hitzaldia, ekonomiatik abiatuta

**Burujabetza eta Estatalitateari buruzko jardunaldien lehen hitzaldia Oskar Arantzabalek eskainiko du, ostegun honetan Sutegin. Ekonomian aditua da Arantzabal eta balizko "Euskal (napar) Estatu baten bideragarritasun ekonomikoari" buruz arituko da 19:00etan hasiko den hitzaldian.**

"Euskal gizartea garai berezia bizitzen ari da, inflexio garaia. Eragiten duten krisiek norabide aldaketa sakona marrazten dute; ekonomia mailan, ekoizpen sisteman; nazioarte mailan globalizazioan; politika mailan, aro luze baten bukaera. Etorkizuneko aukera gisa Estatu burujabe baten bideragarritasunaz hausnartzeko garaia da orain".

Hauxe izan daiteke Oskar Arantzabalen hitzaldiaren hitzaurre modukoa.

**Eguna:** Martxoaren 18an osteguna.
**Tokia:** Sutegin, 19:00etan.
**Sarrera,** doan.


OSKAR ARANTZABAL, EKONOMIAN ADITUA.

KALEBERRI
IRATI PORTU

# Udaberri gazi-gozo



Nire lagun batek aspaldi komentatu zidan kanpotik etortzen ziren lagun batzuk beti harrituta galdetzen ziotela zenbat denbora pasatzen genuen euskaldunok eguraldiaz hitz egiten. Niri grazia egin zidan komentarioak, baina onartu beharra daukat ez duela arrazoi faltarik.

Udaberria zona epeletako lau urtaroetako bat da, negua eta udararen artean datorrena. Gu bizi garen eremuan, udaberriko ekinozioarekin hasi, martxoaren 20-21 inguruan, eta udako solstizioarekin amaitzen da ekainaren 21 inguruan. Hemisferioa epeltzen hasten da landare berriak hazaraziz. Elurra urtzen hasten da, ondorioz ibaiak haziz. Udaberria hazte eta berritzeko garaia bezala ikusten da: landare eta animaliak sortzen dira eta bizitzaren zikloa berriro hasten da. Maitasun eta gaztetasunaren garaitzat ere hartzen da. Nork ez du sekula entzun "la primavera la sangre altera" esaera zaharra?

Hala ere, aipatu beharra dago, mundu guztian ez dela udaberria modu honetakoa izaten. Poloetan, adibidez, ez dago udaberririk, eta lurreko hainbat eta hainbat lekutan udaberria ez da hemen modukoa. Eta mundu guztian udaberria berdina ez den moduan, pertsona bakoitzak ere bere udaberria bizitzen du.

Udaberriaz pentsatzean irudi ugari etortzen zaizkit burura. Batetik aipatu berri ditudanak, eta bestetik, udaberrian bizitutako gertakizunak.

Udaberrian izan ohi da Usurbilgo Sagardo Eguna, eta baita azken aldian Kale Antzerki Eguna ere. Udaberri sarreran hasi zen atez ateko hondakinen bilketa selektiboa herrian, eta dirudienez Hernani eta Oiartzun udaberrian hasteko asmotan dira.

Lehengo urteko udaberrian eraman zuten Jon Anza, eta aurtengo udaberrian oraindik, bere senitartekoek entzundako gezur eta aitzakia merkeek sortutako amorrua barruan izango dutela dirudi.

Honelako opari gazi gozoak egiten dizkigu udaberriak: lore politak eta alergiak.

URDAIAGA
ALAZNE BEGIRISTAIN

# Festak antolatzen



Batek baino gehiagok pentsatuko duzue: festak antolatzen? Tokitan dago ba abuztua? Egia, baina martxan jarri beharra dago: festak zein egunetan izango diren pentsatu, ekintzak antolatu, musika taldeei deitu, aurrekontuak eskatu,…. Badago bai lana egia esan.

Festak iristean segituan pasatzen dira egunak baina horretarako, aurretik, dena ondo lotuta utzi behar da. Hori dela eta , Sanestebango Jai Batzordekoak hasi gara biltzen. Eta txoko hau aprobetxatu nahi nuen festak antolatzeko jendea animatzera. Badakizue nortzuk garen eta lasai gerturatu guregana, ateak zabalik izango dituzue eta! Honela jarrita badirudi dena lana dela baina momentua iristean oso ondo pasatzen da!

Gainerakoan beti bezala jarraitzen du gure auzoak (nik dakidanez behintzat). Udaberriaren zain gaude irrikitan, honek bizi asko ematen baitio gure auzoari: baserritarrak baratzean, haurrak parkean jolasean, ermitan ezkontzak,…. Negua tristea gelditzen da alderdi honetatik behintzat.

Berriz ere lehenengo gaiari helduz; animatu zaitezte Sanestebango festak prestatzera! Badakizue non gauden!

KALEZAR
MADDI GALBETE

# Bidea hasi besterik ez da egin



Igandea. Jendea hurbiltzen hasi zen, pixkanaka, Sutegi parera. Urduritasuna, emozioa, jakiteko gogoa. Nagusitu ziren mila sentimendu bertan geundenon artean. Eta garaipena, azkenean garaipena.

Ez zen sekulako emaitza izan, ez dugu ukatuko, baina nahikoa, atez atekoa behin betikoz martxan jartzeko.

Eskerrak luzatu nahi ditut gaur. Eskerrak luzatu nahi dizkiet herritarrei, aukera hau eman eta babestu duzuen guztioi.

Eta esan nahi dut, baita ere, hau hasiera besterik ez dela, bide luze bat daukagula aurretik gauzatzeko, eta ez garela bakarrak izango, inguruan beste hainbat herrik ere parte hartu nahi izan dutelako aukera paregabe honetan.

Espero dut hemendik aurrera ere, eta pixkanaka, inguruan eta ez horren gertu dauden herriak, hiri txikiak eta zergatik ez? Baita hiri handiak ere emaitzak ikusiz martxan jartzea, jakin badakite eta Usurbilen eta beste hainbat herriren babesa izango dutela.

Bidearen hasieran baino ez gauden arren, gutxienez bide egokia aukeratu dugulako, oraingo honetan, eta nekez gelditukо gaituztelako.

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Santueneko kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

AGINAGA ANE MANZISIDOR

# Aginagako II. Mendi Lasterketa



Aurreko kronikan aipatu nizuen, aurten ere Aginagako II. Mendi Lasterketa antolatzeko lanak hortxe genituela esku artean... Ba dagoeneko badugu data. Aurtengoan, apirilaren 18an ospatuko da. Hilabete eskas geratzen zaizue entrenamenduak prestatzeko eta guri antolaketa lanak behar bezala gauzatzeko.

Iazkoa hobetzea ez da lan samurra izango! Iazkoan, lehen edizioa izateko, partehartzaile kopurua nahiko handia izan zen. Ia 150 pertsonak hartu baitzuten parte. Hala eta guztiz, zenbait arlotan hobekuntzak egitea posible zela iruditu zitzaigun. Hau horrela izanik, hiruzpalau lan talde osatu genituen eta hortxe gabiltza hobetzea posible dela iruditu zitzaizkigun gauza horietan buru belarri!! Adibidez, iazko edizioan, ibilbidean zehar asfaltozko bide asko zegoela eta, oraingorako ibilbidea pixka bat aldatzekotan gabiltza. Asfaltozko bide horiek ekidin eta mendi bidea sartuz, beti ere posible den heinean noski!! Hala ere, oraindik ezin dezaket ziurtatu aldaketa hori gauzatzeko aukera izango dugun edo ez, aztertzen ari baikara.



Amaitzeko esan, dagoeneko lasterketan izena ematea zilegi dela. Horretarako www.herrikrossa.com helbidean sartu behar zarete!!! Bertan Aginagako lasterketa aukeratu eta izena eman!!! Partehartzaile bakoitzak 10 euro ordaindu beharko dituelarik lasterketan parte hartu ahal izateko!!! Hemendik, guztiak animatzen zaituztet lasterketan parte hartzera!!! Iazko datuak hobetzea baita gure helburua, hurrengo urtean oraindik eta gogo gehiagoz jarraitzeko lasterketa hau antolatzen!!!

Besterik gabe, apirilaren 18an zuen zain izango gaituzue!!!

ATXEGALDE UNAI AIZPURUA

# Olatuak ezberdinak direlako…



…(0054)653212552…

“Herri txiki batean egon naiz maitia, izen arrarokoa, Urrusbil edo Urrusutil edo, iparraldean… Ikaragarria da hau… Zein bereziak diren. Hau ez da Bartzelona, hau ez da Madril, hau ez da Sevilla… Mendiz josiak inguruak, amalurra dute maite. Itsasoa ere ikusi daiteke bertatik, ederra. Herrian hiru paretako eraikin bitxi bat eta harri bati eskuekin kolpatzen bi mutil gazte. Ondoan, plaza moduko batean 8 gizonek izugarrizko harria tiraka joan etorrian. Artean bertako “pub”etan tragoak edaten bat bukatu orduko beste batera… Euskal Herria, my darling”.

Handik baserri handi batera eraman ninduen, eta bertan sagar zukua edan genuen. Maite dute beren herria, etxez etxe, atez ate, pertxeroz josi dute bai, baina osasunak ba al du preziorik? Kostu gutxiko sistema, balio handiko emaitza! Jende piloa ezagutu dut, sekula ikusiko ez ditudanak gainera, baina momentu horiek betirako gordeko ditut… Baita gaur goizeko buruko mina ere…

Halaxe kontatu zion nire lagunak bere neska lagunari telefonoz, hegazkinaren zain zegoen bitartean, aurpegi nekatu baina irrifar batez… Bizitutakoa desberdina izan zelako…

Esfortzu txikiekin, helburu handiak betetzen dira. Olatu guztiak desberdinak direlako… Ezberdinak garelako?

ZUBIETA PELLO ARANBURU

# Korrikalariak



Badaude gure herrian egunero ikusten ditugun irudiak eta horregatik, hain direnez arruntak, nekez ekartzen ditugu hizpidera. Horietako bat dira korrikalariak. Hor doaz batetik bestera, bertan goxo egin gabe geure aurrean. Eta leku gutxitan ikusiko ditugu Zubietan bezainbeste.

Duela gutxi hasi naiz haiei erreparatzen. Lehenengo gauza: ez dira berdinak. Beraz, hasi naiz sailkatzen.

Beti-txukun taldea. Azken modan doan korrikalariek osatzen dute. Kirolzaleak. Gorputzez ondo osatuak. Euri azpian ere ariko direnak. Taldean naiz bakarka.

Zarpail taldea. Ez dute besteek bezalako apetarik janzkiarekiko. Zaharragoak izaten dira eta kirola egin beharrak bultzatu ditu aritzera, garai batean izan zirena-edo berreskuratu nahian. Begikoak zaizkit, besterik ez bada ere inoiz hasi beharko banu hemen sartu beharko nukeelako nire burua.

Igande ma non tropo. Hauek bakarrik igandetan, eta ondorioz inor baino dotoreago, sekulan ez duzue ikusiko zimurrik haien maillotean. Ezta izerdi tanta erdirik -ez dakit nola egiten duten-...

Bada beste multzo bat, nire irudiko. Gutxitan ikusten da: moldakaitzena. Eta bakanetan errepikatzen dute kirol jarduna. Korritzeko modua ere gogorra da, haserre bezala. Korrika baino areago borrokan. Jo nahian. Bizitzak emandako zartakoa bueltatu nahi edo beren burua zigortu, auskalo. Ez dotorezia, ez dirdaia. Hala ere, lerrook merezi dituzten bakarrak.

# Ekitaldi bete aste

**Gure Pakea elkarteak Jubilatu Astea antolatu du, martxoaren 22tik 28ra. Antzerkia, bi hitzaldi eta sagardotegiko bazkariak bilduko ditu jubilatuak datozen egunotan. Ekitaldi gehienak, Artzabalgo egoitzako areto nagusian burutuko dira.**

Lau ekitaldi programatu dituzte bi egunetik behin, datorren aste osorako. Bi hitzaldiekin emango zaio hasiera Jubilatu Asteari. Parkinson gaitzaren alderdi psikologikoak jorratuko dituzte batean eta bestean, aisialdi aktiboa. Zehazkiago aipatuta, aisialdi aktiboak norbere bizi eta osasunerako duen garrantziaz arituko dira. Bi hitzaldiok, gainerako ekitaldiak bezala Artzabalgo egoitzan burutuko dira.

Antzerkirako beta izango da Jubilatu Astean. Herriko aktoreak antzezten arituko dira Artzabalgo egoitzan. Ixabel Agirresarobek zuzendutako "Hiru Desioak" obra antzeztuko dute Txerriki taldeko kide Maitere Alkortak, Joxe Torregaraik, Kattalin Arzallusek eta Ana Arostegik.

### Bazkarirako txartelak salgai

Zendu diren adinekoak ere gogoan izango ditu Jubilatu Asteak. Martxoaren 28an, eguerdiko hamabietako Meza Nagusian, tarte bat hartuko da, hildako bazkideez oroitzeko. Eguna amaitzeko bazkaria Aialde Berri sagardotegian. Sarrerak salgai daude 20 eurotan bazkideentzat, 26 eurotan gainerako jubilatuentzat. Sagardotegiko menua dastatu ahal izango da, baina lekua mugatua izango da, 55 lagunentzako baino tokia ez da egongo. Txartelak erosteko azken eguna, martxoaren 18a.



MARTXOAREN 22TIK 28RA LUZATUKO DA JUBILATU ASTEA.

### Jubilatu Astea 2010

**MARTXOAK 22, ASTELEHENA**
**16:30** Hitzaldia: "Parkinsonaren aspektu psikologikoak".

**MARTXOAK 24, ASTEAZKENA**
**16:30** Hitzaldia: "Aisialdi aktiboak norbere bizi eta osasunean duen garrantzia".

**MARTXOAK 26, OSTIRALA**
**17:30** Txerrikiren antzezlana Artzabalen, "Hiru Desioak".

**MARTXOAK 28, IGANDEA**
**12:00** Meza Nagusia, hildako bazkideen alde.
**14:00** Bazkaria, Aialde Berri sagardotegian.

## Martxoaren 24an, Elizako organoa hobeto ezagutzeko aukera

Soinurbil Musika Astea pasa zen, baina oraindik ekitaldi bat falta da egiteko. Zumarte Musika Eskolak eta Organoaren Lagunak taldearen ekimenez, saio interesgarri bat prestatu baitute.

Soinurbilen seigarren edizioari amaiera emateko, 2007an ehun urte bete zituen Salbatore Elizako organoa ezagutzeko bisitaldi pedagogikoa antolatu dute. Datorren astean izango da hori, martxoaren 24an, arratsaldeko 18:00etan.

Usurbilgo Organoaren Lagunak taldeko kide Juan Luis Atxegak egingo ditu gidari lanak.

## 00.065, AEKren zozketako zenbaki saritua

Urtebetean hilero 1.000 euro irabazteko zozketa jarri zuen martxan AEK euskaltegiak. 00.065 izan zen zenbaki saritua. Sari hori erreklamatzeko azken eguna martxoaren 25a izango da. Zenbakiaren jabe bazara, deitu 943 32 71 72 telefono zenbakira. Ordurako ez bada zenbaki sarituaren irabazlea agertzen, martxoaren 26an ONCErekin ateratzen den zenbakia hartuko da kontuan.







# Txikizioak hilerri zaharrean

**Hilerri berria ireki zenetik, nabarmen gutxitu da Atxegaldera joateko bidean dagoen hilerri zaharreko herritarren joan etorria. Irekia jarraitzen du, bertan jarraitzen baitute hilerri berria ireki aurretik lurperatu zituzten herritarrek. Azken aldian ordea, zendutako senide edo laguna bisitatzera joandako herritarrez gain, bada hilobiak puskatu dituenik ere, ondoko irudietan agertzen den moduan. Hilobi batzuk apurtuak, besteak lekuz mugituta…**

Haizeteak eraginda, zuhaitz bat erori zen; baina horretaz aparte, nahita egindako txikizioen arrastoak nabariak dira, argazkian ikus daitekeen moduan. Asko dira kaltetu dituzten hilarriak.



EZEZAGUNEK KALTEAK ERAGIN DITUZTE HILERRI ZAHARREAN.

Honek ezinegona sortu du, bereziki, hilerri honetan etxekoak dituzten herritarren artean. Udaltzaingoak gaiari heldu dio jada.



## Pedro Ibarra, Herri Plataforma

# “5 edukiontzien aldeko boto-emaileok azaldu dugu atez atekoak baduela alternatiba erreala”

**Herri Plataformak aurreko astean bidali zuen NOAUA!ra herri galdeketaren inguruko balorazioa. Adierazpen horien hainbat pasarte itzuli ditugu orri honetan. Partehartzea ikusgarria izan zela adierazi ondoren, “5 edukiontzien alde jasotako emaitza arrakasta handia” izan dela uste du Pedro Ibarrak, Plataformako bozeramaleak.**

Galdeketa, Herri Plataformak eta eurek bildutako 800 sinadurak bultzatutakoa izan dela nabarmendu nahi du Pedro Ibarrak bere balorazioan, “ANV, Aralar, PNV eta PSE-EEren kontrako jarreraren aurrean”.

Errolda zein botoen inguruko irakurketa ere egiten du Pedro Ibarrak (ikusgai dago balorazio osoa Usurbilgo Hamaikabat alderdiaren web-gunean); eta emaitzen inguruko hausnarketa hauek egin ditu.

**GALDEKETAREN PROZEDURAZ**

“Eusko Jaurlaritzak helegitea aurkeztuko duen itxaropena dugu”

Herri Plataformako bozeramale honen ustez, “4 edukiontzien aukera manipulazio saiakera bat izan zen baina Hamaikabat eta Herri Plataformaren kanpaina informatiboari esker, manipulazio saiakera hori bertan behera” utzi zuten. Emaitzek gainera, “atez atekoak erresistentzia sozial handia duela erakutsi dute”.

### Datozen hauteskundeei begira

Atez atekoa errauste-plantaren aurkako botoa izan dela uste du Herri Plataformako bozeramaleak. “Usurbilgo alderdien boto-diziplina jarraituz: ANV, Aralar, PNV, PSE eta Ezker Batua; batzuk, beste herrialde batzuetan duten jarreraren aurkakoa defendatuz Usurbilen”.

Ezker Abertzaleak, Aralarrek eta EAJ-PNVk sinatutako adierazpenaz eta argazkiaz ere, honako balorazioa egiten du: “seguru datozen hauteskundeetan askok kontuan izango dugula”.

Herri galdeketaren emaitzen ondoren, udal gobernu taldeak jarrera ez badu aldatzen, “atez ateko bilketaren ondorioak jasan beharko ditugu. Inposatutako sistema (egutegia eta orduak) inkisidorea, isunekin, antihigienikoa, antiestetikoa eta askoz garestiagoa (...)”.

Orain arte, Zubietan ez zen atez atekoa ipini. Herri galdeketan, atez atekoa nagusitu denez Zubietan, “bozketa errespetatu eta atez atekoa jarriko da Zubietan?”.

Santuenean, aldiz, 5 edukiontzien aldeko botoak gehiago izan zirenez, Herri Plataformak zera galdetzen du: “Zubietako herritarren iritzia errespetatu zuten bezala, Santuenean ere herritarren iritzia errespetatuko dute eta atez atekoaren ordez 5 edukiontzien aukera ezarriko dute?”.

### Herri galdeketari helegitea

Kontsultaren prozesuan, informazioa ukatu zaiela salatu nahi du Pedro Ibarrak, “dirulaguntza eskaera ere ukatu digute”. Gutxietsiak izan direla pentsatzen dute eta, bestetik, herri galdeketa kanpainan jazarpena jasan behar izan dutela.

Kontsultak, halaber, legearen aurkako ezaugarri asko izan dituela uste dute Herri Plataformakoek, “Zuzenbidera egokituta ez dauden hainbat puntu daude eta Eusko Jaurlaritzak helegitea aurkeztuko duen itxaropena dugu”.

Atez atekoak berdin-berdin jarraitzen badu eta epaitegiek kontsultaren prozedura eta kontsulta bera baliogabeak izan direla esaten badute, “seguru gaude hurrengo hauteskundeetan aukeratuak izango diren alkateak eta zinegotziek 5 edukiontzien bilketa berrezarri ahal izango dutela”.



HERRI PLATAFORMAKO BOZERAMALEAK GALDEKETAREN EMAITZEN INGURUKO BALORAZIOA IGORRI DIGU.

Amaitzeko, eta ondorio gisa, Pedro Ibarrak dio “5 edukiontzien aldeko boto-emaileek azaldu dugu atez atekoak baduela alternatiba erreala, sistema merkeagoa, erosoagoa eta garbiagoa”.

### Bilketa sistema mistoa proposatzen dute

Hondakinen bilketari buruzko hausnarketa egitea eskatu nahi dio Herri Plataformak udal gobernu taldeari. Bilketa misto bat posible ote den galde egiten du. “Beirazko edukiontziak mantendu egin dira, atez atekoa martxan jarri eta gero ere. Ezin dira papera zein ontzien edukiontziak ere mantendu, eta atez atekoa soilik egin errefusa eta organikoa biltzeko?”. Era honetan, atez ateko bilketaren gastuak dezente merketuko liratekeela dio Pedro Ibarrak.

# Hondakinen kudeaketari lotutako Usurbilgo Ituna sinatu dute hamazazpi eragilek

**Adostasun eta konpromiso hitzek defini dezakete, martxoaren 12an Donostiako Kursaal jauregian hedabideek grabatu ahal izan zuten irudia. Hamazazpi eragilek hondakinen kudeaketaren inguruan duten adostasuna eta bete nahi dituzten erronkak dokumentu batean islatu zituzten. Eta guztiek, aurrerantzean, Usurbilgo Ituna izenez ezagutuko den agiria sinatu zuten.**

Donostiako Kursaal jauregia, hondakinen kudeaketaren inguruko adostasun eta konpromisoen lekukoan bihurtu zen igaro den martxoaren 12an. Xabier Mikel Errekondo alkateak ordezkatutako Usurbilgo Udala buru zela, sindikatu, alderdi politiko edota herri mugimenduetako zenbait bilgunek, guztira hamazazpi eragilek Usurbilgo Ituna izeneko dokumentua sinatu zuten.

### "Zero zabor"

Errekondok itunaren edukia aurkeztu zuen prentsaurrekoan. Zazpi puntuko dokumentuak edozeren gainetik, herritarren osasuna lehenesten du. Hondakinak kudeatzeko modu gisa, zabortegiak eta erraustegiak baztertu eta sinatzaileek herrialde osoan "zero zabor" programa garatzea eskatzen dute. Horretarako, beharrezkoak diren bi osagaiak zeintzuk diren aipatzen dute; organiko kopuru gehiena jasotzen duen bilketa sistema –atez atekoa nabarmentzen dute– eta konpostaje-azpiegitura egokia.

Herrialdeari aukera bat eman eta bi eskaera luzatzen dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiari; sei urteko moratoria jartzea Zubietako errauste-plantari eta aipatu denbora tartea berrikuntzaren bidea jorratzeko baliatzea.

### Usurbilgo Itunaren sinatzaileak

Alternatiba, Ezker abertzalea, Ezker Batua-EB, Berdeak, Aralar, HIRU, LAB, Errausketaren Aurkako Koordinadora, CCOO, ELA, EHNE, EILAS, ESK, Eguzki, Greenpeace, Ekologistak Martxan, Usurbilgo Udala.



ITUNA PASA DEN OSTIRALEAN SINATU ZEN KURSAALEN.

## Usurbilgo Ituna

Hondakinen kudeaketa-ereduaren norabidea une itxaropentsuan dago Gipuzkoan, Usurbilgo atez ateko bilketak bide berria zabaldu duelako, besteak beste. Eztabaida soziala eta instituzionala ere oraintxe gorpuztu dira.

Horregatik, itun hau sinatzen dugun eragile sozial eta politikoek honako hau adierazi nahi diegu gipuzkoarrei:

1- Gipuzkoarron osasuna da lehenesten dugun irizpidea gaiaren aterabidea zedarritzeko, beste edozein irizpideren gainetik. Osasuna lehenesteak, ordea, ez du esan nahi gainerako irizpideak kontutan hartzen ez ditugunik, hala nola, ingurumena, ekonomia, lanpostuak…

2- Bat egiten dugu zabortegiak gainditzeko konpromisoan, legeek eta zuzentarauek ondo jasotzen duten bezala.

3- Bat egiten dugu errausketa gure asmo eta ekinbideetatik baztertzeko, eta hondakinen kudeaketa beste balore, teknologia eta prozedura batzuen bidez bideratzeko.

4- Bat egiten dugu Gipuzkoa osorako "zero zabor" programa zabala ezarri eta garatzeko beharrean. Gipuzkoarako zero zabor programak modu egokian eta nahikoan konbinatu beharko ditu bilketa selektibo onena eta konpostajea, bi alderdi hauek osatzen baitute hondakinen arazoa konpontzeko soluziobideen ardatza. Horrek esan nahi du konpostaje-azpiegitura egokia antolatu behar dela.

5- Zentzu horretan, ontzat jotzen ditugu organikoa ahalik eta gehien jasotzen duten sistemak, nabarmenduz Usurbilgo herrian ezarri den atez ateko sistema lau arrazoi nagusi hauengatik:

a. Sistemarik eraginkorrena da: bilketa selektiboa %85era iristen da, eta inpropioen kopurua marjinala da. Ondorioz, konpostaren kalitatea ere ezin hobea da.

b. Emaitzak berehalakoak dira: Usurbil %76ra iritsi zen lehenengo 4 asteetan.

c. Hondakinen gaikako bilketa-sistema merkeena da.

d. Lanpostuak sortzen ditu. Gipuzkoan 477 lanpostu berri sortuko lituzke, egungo lanpostuez gain.

6- Ondorioz, Gipuzkoako Diputazioari eskatzen diogu 6 urteko moratoria ezar diezaiola Zubietako errauste plantari. 6 urte horietan "zero waste" programa ezarri beharko luke, herri bakoitzera egokitutako gaikako bilketarako sistemarik onena eta konpostajea konbinatuta. 6 urte denboratarte nahikoa da hondakinak errausketarik gabe kudeatzeko gai ote garen ebaluatzeko.

7- Eskatzen diogu, era berean, baliatu dezala aukera hau Gipuzkoa berrikuntzaren bidean tematzeko, orain arte bezala aitzindari izan dadin. Ez dago gipuzkoarron kemena eta eskuzabaltasuna ordezkatuko duen teknologiarik, are gutxiago haien osasuna kaltetzen badu. 6 urteko geldialdia besterik ez dugu eskatzen. Eman diezaiogun aukera bat Gipuzkoari.

## Imanol Agirretxe, Realeko aurrelaria

# “Harrobiko talde batekin lortzen ari gara”

**Reala Lehen Mailan zegoela egin zuen debuta Imanol Agirretxek. Orain maila gorenera igotzeko aukera asko ditu. Futbolean 13 partida, asko dira. Puntu asko daude jokoan oraindik. Baina garai egokian eta toki egokian dira une honetan. Ikasgelatik atera berritan bildu ginen Imanolekin.**



IRUDIAN, IMANOL AGIRRETXE; ATZEAN REALEKO BANDERA IKUS DAITEKE.

NOAUA. Zer ari zara ba ikasten?

**Imanol Agirretxe.** Zubietan bertan ari naiz entrenatzaile ikastaroa egiten. Eusko Jaurlaritzak martxan jarri zuen programa bat da. Bi ikasturte dira. Lehen ikasturtean, jubenil eta regional mailako titulua lortzen da eta bigarren urtean nazionalekoa. Titulu ofizial bat da, hezitzaile izateko ere baliagarri dena. Eta unibertsitatera joateko sarbidea izan daiteke.

**N. Entrenatzaile ikusten duzu zure burua?**

**I. A.** Nahiko urrun dago momentu hori. Kristoren aukera zen, Zubietan bertan gainera. Eta etorkizunean, nahiz eta entrenatzaile ez izan, unibertsitatean sartzeko ateak ere irekitzen dizkigu.

**N. Baina aritu zara entrenatzaile bezala noizbait, ume txikiekin edo.**

**I. A.** Entrenamenduren batean egon naiz Haranen, Usurbil FT taldeko zuzendaritzakoek eskatuta, herriko gaztetxoekin. Baina esperientzia puntualak izan dira.

**N. Atzera joko dugu une batez. Denboraldi hasieran, Realak zailtasun handiak zituen fitxaketak egiteko. Lehen partidetan, gainera, emaitzak ez ziren onenak izan. Baina orain, 13 partiden faltan, Reala lidergoan da. Imajinatzen zenuten horrelako egoerarik eman zitekeenik?**

**I. A.** Realean bertan bazegoen oinarri bat. Azken bi urteotan zer edo zer lortzeko borroka horretan ibili gara, eta taldean bazen oinarri bat, denbora honetan sendotu dena. Denboraldi borobil bat osatzea baino ez zen falta. Eta oraingoz bide onetik goaz. Egia da denboraldi hasieran kluba ekonomikoki nahiko mugatua zegoela, fitxaketak ezin ziren puntako jokalariak izan…

> **GILTZA, ANOETAN**
>
> “Levante, Hercules... datoz Anoetara eta partida horiek oso garrantzitsuak dira. Balio bikoitzekoak”

Baina Realak zorte handia izan du, etxeko jokalarien aldeko apustua egin du eta ondo ateratzen ari da apustua. Gaur egun, igotzeko aukera asko ditugu eta harrobiko talde batekin lortzen ari gara.

**N. Duela gutxi zenioen datozen 4-5 partidak funtsezkoak izango direla.**

**I. A.** Partida guztiak dira garrantzitsuak. Hasierakoak zein bukaerakoak berdin balio dute, 3 puntu. Baina laster Levante, Hercules (zuzeneko aurkariak) datoz etxera eta norgehiagoka horiek oso garrantzitsuak izango dira. Balio bikoitzeko partidak direlako horiek.

### “Gu gara errealistenak”

**N. Sagardo Egunean, Reala primeran ospatzeko moduan izango zarete?**

**I. A.** Ez, ez dakit, oso zaila da… Baina ospatzeko ez zen egun txarra izango! Gu lasai gaude baina kanpoan normala da euforia hori egotea, lortu dugun abantaila kontuan izanda.

**N. Baina “Aurten bai” dio jende askok.**

**I. A.** Bai, bai. Jendeari entzun diot “hilabete faltan igoko gara…”. Baina guk badakigu hori ez dela erreala; gerta liteke, baina ez da oraintxe bertan hori pentsatzeko garaia. Guk bi partida galduz gero, eta atzekoek 6 puntu lortzen badituzte, berriz ere kinka larrian gaude. Alde horretatik, akaso barruan gaudenak gara errealistenak. Ze badakigu astebetean gauzak asko aldatu daitezkeela.

# "Futbol munduan, zerutik infernura pasatzen gara astebetean"

**NOAUA. Zaletu asko hurbiltzen dira Anoetara. Baita kanpoko partidetara ere. Pozgarria izango da, ezta?**

**Imanol Agirretxe.** Guk ardura handia dugu zaletuen aurrean, baina zaletuek ematen diguten indar hori ere sumatzen dugu.

**N. Eta erraza da Usurbil bezalako herri batean bizitzea, ze hemen ere zaletu askorekin egingo duzu topo.**

**I. A.** Baina herrian denok ezagutzen dugu elkar, futbolean hasi baino lehen. Zentzu horretan, ez dut berebiziko arazorik. Herrikoak ezagunak bezala hartzen ditut, ez jarraitzaile moduan. Gainera, normalean, fede onez etortzen dira eta animuak ematera.

Baina jendea oso aldakorra da. Prentsan ere, zerutik infernura pasatzen gara astebetean. Tarteko balorazioirik askotan ez da egoten. Edo oso ondo edo oso gaizki.

**N. Bi hilabete titular izan gabe pasa zenituen. Ondo eraman zenuen garai hura?**

**I. A.** Jendeak beste garrantzia bat ematen dio horri. Futbolean gabiltzanak badakigu batzuetan jokatzea tokatuko zaigula, beste batzuetan ordezkoen aulkian egotea edo harmailetan egon beharra… Hori onartutako gauza bat da. Guk normaltasun gehiagorekin ematen dugu hori guztia. Lanean segi, hori da nire lana eta badakit aukerak sortuko direla.

Eta sortzen direnerako, prest egotea. Hori da niretzat garrantzitsuena. Aukerak sortzen direnerako, prest egotea.

**JOKATZEN EZ ZUENEAN...**

"Denon hobe beharra ikusi behar duzu eta horrelakoetan zu izan behar zara lasai egon behar duen lehena"

**N. Normaltasun osoz eman duzu orduan.**

**I. A.** Kezka hori baduzu, ez duzulako jolasten, baina taldean pentsatu behar da. Denon hobe beharra ikusi behar duzu eta horrelakoetan zu izan behar zara lasai egon behar duen lehena.

**N. Aspaldi ez bezala, harrobiko jende asko zaudete lehen taldean.**

**I. A.** Ia lagun koadrila baten modukoa gara. Nire adinekoak bospasei bagaude. Eta hamar izango gara Sanseren garaitik hona elkar ezagutzen dugunak. Horrek abantaila baino ez du ekartzen. Alde horretatik dena da ona, dena da positiboa.




IMANOL AGIRRETXE, XABI PRIETOREN BESOETAN. ASTE HONETAN, ANOETAN JOKATUKO DU REALAK BERRIZ ERE.

## "Zure herria defendatzea gauzarik handiena da"

**NOAUA. Euskal selekzioa jokatzen ikusiko al dugu berriz ere?**

**Imanol Agirretxe.** Nik uste dut baietz. Jokalari guztiak hartu dugu euskal selekzioa aurrera ateratzeko konpromisoa. Baina selekzioaren partida batek ezin du izan dirua ateratzeko partida bakarrik; abenduan partida bat jokatu eta gero urte osoan besoak gurutzatuta egon.

Gu prest gaude biltzeko eta ofizialtasunaren alde programa bat finkatzeko. Ze ofizialtasuna eskatu bai baina gero horren alde lanik ez badugu egiten, ba alperrik ari gara. Horregatik egin genuen planto hura. Selekzioak jokatu izan duenean, zelai osoa ofizialtasun eske izan da, horren alde merezi du lan bat egiteak, ezta.

**N. Jolastu duzu noizbait euskal selekzioarekin?**

**I. A.** Kategoria txikietan bai baina nagusian ez. Txikitako ametsa da. Beno, lehen ametsa Realarekin jokatzea zen, Realeko elastikoa defendatzea. Baina zure herria defendatzea, hori gauzarik handiena da.

## "Kirol talde batek lasaitasuna behar du"

**NOAUA. Lasaitasun instituzional hori ere igarriko da.**

**Imanol Agirretxe.** Orain, ekonomikoki orekatuta dago kluba. Egin beharrekoak egin dira eta lasaitasuna nagusi da taldean. Hilabete batzuetan, Badiolaren garaian, beti bazen kirol jarduera zipriztintzen zuen beste zerbait. Baina kirola egiten duen talde batek lasaitasuna behar du. Garai horietan futbolaz baino beste kontuetaz gehiago hitz egiten zen eta hori ez da ona.

# Argazki bilduma bat osatu nahi du Ziortzak

**Mende laurdena beteko du aurten Ziortza Gazte Elkarteak eta ospakizunik ez da faltako. Elkarteko kideak urteurreneko ekitaldiak prestatzen hasiak dira. Besteak beste, 25 urteotako Ziortzaren ibilbidea jasoko lukeen argazki bilduma osatuko dute. Horregatik, honako oharra plazaratu nahi dute: "25 urte hauetan Ziortzak antolatutako ekintzetan parte hartu baduzu eta bilduma horretan zure argazkiren bat ateratzeko edozein eragozpen baduzu, mesedez jarri gurekin harremanetan martxoaren 31 baino lehen".**

Martxoaren 31 arte zabalik jarraitzen du Ziortzak antolatu duen udako kanpamenduan.

### Kanpamendurako izen ematea

Adin tartearen araberako bi txanda prestatu dituzte gazte elkartekoek; lehenengoa, uztailaren 5etik 18ra eta DBH-ko ikasleek parte hartu ahal izango dute.



UDAKO KANPALDIAN IZENA EMATEKO DEIA ERE EGIN DU ZIORTZAK.

Bigarrena, uztailaren 18tik 24ra, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.mailetako ikasleentzat. Antolatzaileek izen emateko esku orriak prestatu eta Udarregi ikastolan banatu dituzte. Baita, Ziortzako saioetan ere. Kanpamendura joan baina esku orria ez duenak, apaiz etxera hurbildu behar du. Postontzi ondoan aurkituko ditu esku orriak. Datu pertsonalekin bete, eta aipatutako postontzi horretan utzi behar da. Informazio gehiago nahi duenak e-mail bat idatzi besterik ez du honako helbidera: ziortzage@gmail.com

## Antzerki ikastaroan izena emateko aukera irekita dago oraindik

Abian da gaztetxoen antzerki tailerra. Martxoaren 6an burutu zuten lehen saioa. Izen emateak zabalik jarraitzen du, halere: 680 742 504 (Nekane) edo 657 711 335 (Maite). LH 3, 4 eta 5. mailako ikasleei zuzenduta, guraso talde batek antolatutako ekimena izan da.

## "Erreka Mari", txotxongiloak Bihurri ludotekan



Datorren astean, martxoaren 26an ostirala, Bihurri ludotekan "Erreka Mari" ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute. Txotxongilo saioa arratsaldeko 17:30ean hasiko da.

# Uhin elektromagnetikoen artean bizi gara

**Uhin elektromagnetikoek gugan duten eraginaz ohartarazteko hitzaldia antolatu du Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak martxoaren 24rako. Sakelako telefonoek edota WIFIak gure osasunean zer eragina duen aztertuko dute bi adituk.**

Eskura izan ohi dugun sakelako telefonoa edota WIFI-a, dei bat egin edota Internetera konektatzeaz gain, uhin elektromagnetikoak hedatzeko gailu ere badira. Helduek baino haurrengan eragin handiagoa dute uhin elektromagnetikoek.

Gai honetaz ohartarazteko Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso eskolak antolatu duen hitzaldian Irune Ruiz eta Jabier Perez adituek argituko dutenez, telefono mugikorretatik haurren garunak helduenak baino %50 erradiazio gehiago xurgatzen omen du. Eta hainbat ikerketek ondorioztatu ahal izan dutenez, baimendutako mailan ere, ondorio kaltegarriak eragiten ditu. Mugikorrekin batera, hor daude WIFIaren uhinak ere. Bere uhinek 300 metro arteko ibilera omen dute norabide guztietan eta etxebizitzako horma, sabai eta zoruetatik sartzen dira. Gainera, bere WIFIa eta bizilagunenaren uhinak ere jasan behar ditu.

### Hitzaldia Udarregi ikastolan

Uhin hauetatik urrundu eta kontu handiagoa izan beharko luketenak, hitzaldian jakinaraziko denez, haurrak, haurdun dauden emakumeak eta osasun arazoak dituzten pertsonak dira.

Honetaz hitz egingo da Hitz Ahok antolatu duen hitzaldia.



GAI HONI BURUZKO HITZALDIA ANTOLATU DU HITZ-AHOK.

**Eguna:** martxoaren 24a asteazkena.
**Hitzaldia:** "Uhin elektromagnetikoek pertsonengan duten eragina" (gaztelaniaz).
**Hizlariak:** Irune Ruiz eta Jabier Perez.
**Tokia:** Udarregin, 18:00etan.
**Antolatzailea:** Hitz-Aho Udarregi ikastolako guraso elkartea.

# Erregional mailako futbol taldeak, Kopa helburu

**Hirugarren postuan sailkatuta, lehen bi taldeekin puntu kopuru aldetik berdinduta daude futboleko erregional mailako jokalariak. Gogotsu aritzen dira lanean, jada finkatua duten helburua betetzeko; Kopa irabaztea. Aukerak, eta ez gutxi, badituztela dio entrenatzaile Daniel Hernandezek.**


AURRERA BEGIRA, "OSATU DUGUN TALDEA EZ DADILA APURTU", HORI DA ENTRENATZAILEAREN DESIOA.

**NOAUA! Denboraldi honetarako finkatuak dituzuen helburuak zeintzuk dira?**

**Daniel Hernandez.** Lehen helburua, talde ona sortzea zen, talde giro ona sortzea. Lagun arteko talde bat izan eta ondo pasa arren, diziplina apur bat eta denon artean errespetua egotea, hori zen lehen helburua. Futbolaren alorrean, bigarren helburua, talde on bat osatu eta hobeto elkar ezagutzen saiatzea zen. Aurten jokalari gehienak berriak izanik, ez ziren elkar ezagutzen. Gehienak futbol zazpian jokatzetik datoz. Talde batua, prestua, apala eta langilea izaten lortzen ari gara.

**N. Egokitzapenerako tartea hartu behar izan duzue beraz?**

**D. H.** Izan ditugu gure zailtasunak jokalarien artean, eta neronekin ere, baina konpontzen joan gara. Meritu handia jarri dute euren aldetik, eta beste pixka bat nire aldetik. Gutxinaka, gaur talde on bat dena osatzen joan gara.

**N. Denboraldia esperotako emaitzak ekartzen ari al da?**

**D. H.** Denboraldi hasieratik ibilbidea mailakatua izan da. Prozesu horretan ondo joan da dena, baina oraindik lan asko geratzen da. Jubenil mailatik jokalari asko igoko da, eta hau beti kate bat da, ez da inoiz eteten. Oro har, taldeari balorazio bat jartzekotan, oso ongi bat emango nieke denei.

## ENTRENATZAILEA, BAIKOR

"Animatuta gaude eta aukera dezente ditugula uste dugu"

**N. Ekaina gerturatzen ari da, taldea noraino ailegatzea nahi zenuke?**

**D. H.** Denok noski, Kopa irabazteko gogoz gaude. Neure eta euren buruan dago helburu horretara ailegatzea. Gero zirkunstantziengatik, lesioak direla edota gerta litezkeen beste faktore askogatik ezinezkoa bada, ez da ezer gertatzen. Baina denon buruan dago Kopa irabazteko lan egitea.

**N. Kopa lortzeko bide horretatik gertu zaudete une honetan?**

**D. H.** Une honetan, hirugarren daude, lehen eta bigarren postuan sailkatuak dauden taldeekin puntu aldetik berdinduta. Hirugarren postuan, gol diferentziagatik gaude. Finkatua dagoen helburura ailegatzeko, talde on batekin, nahiko animatuta eta aukera dezente ditugun ustearekin gaude.

## "Taldea bikaina da, horrela jarrai dezatela"

**NOAUA. Zuen taldea zer ezaugarrirekin defini liteke?**

**Daniel Hernandez.** Jende oso langilea izan eta oso ondo pasatzen dutela esateaz gain, talde batean egon gaitezke, kirola egin, animatuak egon, lehiatu, txapelketa polit batean parte hartu, jende gehiago ezagutu… Kirol alorretik kanpo, aipatzekoak afariak ere, baina horretaz ezin gehiago esan. Nire lehen urtea izan da entrenatzaile gisa. Eskerrak eman, benetan talde txundigarria delako. Estimu handia diot taldeari. Talde bikaina da, eta horrela jarrai dezatela.







## Agenda !!

**Martxoak 18 osteguna**

- "Euskal (Napar) Estatu baten bideragarritasun ekonomikoa", hitzaldia Oskar Arantzabalen eskutik, 19:00etan Sutegin.
-Manifestazioa Mikel Laboa plazatik abiatuta, 19:30etik aurrera.

**Martxoak 24 asteazkena**

- Elizako organoaren erakustaldi pedagogikoa, 18:00etan Salbatore elizan. Soinurbil.
- "Uhin elektromagnetikoek pertsonengan duten eragina", hitzaldia. Hitz-Ahok antolatuta, 18:00etan Udarregin.

### Goardiako farmaziak

**Martxoak 18, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 19, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 20, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 21, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 22, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 23, asteartea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 24, asteazkena**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Martxoak 25, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 26, ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 27, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 28, igandea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Chucla farmazia** (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# "Enplegua suntsitzearen aurkako martxa" antolatu du LAB sindikatuak

**Enplegua suntsitzearen aurkako martxa antolatu du LAB sindikatuak. "Buruntzaldea alarma gorrian" lemapean, Usurbildik abiatuko dira datorren martxoaren 26an ostirala, eta Hernanin amaituko da ekitaldi batekin.**

LAB sindikatuak deitu duen martxa honen bidez, eskualdeak ekonomikoki bizi duen egoera larria salatu nahi du. Langileei zuzendutako ekimen hau Usurbilgo Mikel Laboa plazatik abiatuko da, goizeko 9:00etan. Oriara 10:30ean iritsiko da eta handik Urnietarako bidea hartuko dute. Urnietan hamaiketakoa egin ondoren Hernanira joko dute ondoren. 12:30ak aldera amaituko da LAB sindikatuak deitu duen martxa.




MICHELINEKO LANPOSTUEN ALDE EGINDAKO MANIFESTAZIOA. ORDUTIK EGOERAK EZ DU HOBERA EGIN ESKUALDE MAILAN.

**Martxoak 26 ostirala**

**9:00etan** irteera Usurbildik, Mikel Laboa plazatik.
**10:30ean** Orian.
**11:30ean** Urnietan, hamaiketakoa.
**12:30ean** Hernanin amaiera.
**Deitzailea:** LAB sindikatua.

## Ostegun honetarako, manifestazio deialdia

Jon Anzaren heriotza salatzeko, manifestazioa egingo da ostegun honetan Usurbilen, arratsaldeko 19:30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta. Manifestazioaren deialdiak dioenez, "guda zikina eta errepresioa Euskal Herritik behin betirako desagertu dadin aldarrikatzeko eta Jon Anzaren hilketa salatzeko usurbildarrak kalera aterako gara".

Manifestazioa, beraz, ostegun honetan izango da, arratsaldeko 19.30ean Mikel Laboa plazatik abiatuta.

## Erroizpe elkarteko batzar orokorra

Txokoaldeko Erroizpe elkarteak batzar orokorra burutuko du igande honetan, **martxoaren 21ean**. Bi deialdi egin dituzte; lehenengoa goizeko 11:00etarako deitu dute, bigarrena 11:30erako.

## Pintxo tailerra

M**artxoaren 24an** asteazkena, kanape eta pintxo ikastaroa, 19:00etan hasita. Iraupena: 2 ordu. Euskaltegiak antolatu du baina aldez aurretik telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 372 001.









### ETXEBIZITZA

- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- San Inazio kalean etxea salgai. Dena berritua eta hiru balkoi ditu, oso eguzkitsua. 686969112.
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Leonardo 125 motorra sagai, egoera onean. 700 euro eta iraila arteko segurua barne. 665715321
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
-Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

### LANPOSTUAK

#### Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpietatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

#### Lan-eskaintzak

- Urte asko herrian daramatzan emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziduna. 606 800 837.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Plumifero grixa eta L tallakoa galdu dut Artzabalgo frontoian. Mesedez aurkitzen baduzu deitu: 656.702.957
- Otsailaren 21ean mugikor bat, Nokia markakoa, galdu nuen. Aurkitu duenak deitu mesedez: 610261086
- Mugikor bat galdu da, Samsung markakoa. Tf: 636 39 32 37.
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Otsailaren 20an txamarra marroi bat galdu nuen Olarrondon. 600768570.
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
- Bideo-muntaiak egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalera x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Otsailaren 3an belarritako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handikoak. 666177913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
-Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. 609099824.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. Telefono zenbakia: 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
-Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Maria!** Martxoaren 19an egingo dituzu 7 urte. Zorionak eta besarkada handi bat aita, ama eta Noraren partez. Zorionak zuri, zorionak beti...



**Badatorrela badatorrela udaberriarekin batera...** Zure urtebetetze eguna! Zorionak maitia eta muxutxuak denon partez!



**Zorionak Iker!** Zazpi urte egingo dituzu martxoaren 18an. Zorionak eta muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Lorearen partez. Ondo pasa!



**Zorionak Igor!** Martxoaren17an 5 urte beteko dituzu. Segi beti bezain bihurri. Muxu handi bat, etxeko guztien partez.

Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotakoak dira. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... Ekarri edo bidaltzeko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. erredakzioa@noaua.com

# osasun gida

## Optika

**USURBIL OPTIKA**

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ✆ 943 370 269

## Fisioterapia

FISIOTERAPIA ZENTROA
**Ibaiondo**

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ✆ 943 370 306

## Masajista

**Kima**
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

## Farmazia

**iturralde botika**
Tomas Iturralde botika
R.P.S. Nº 98/07

✓ Maisu formulak
✓ Dermofarmazia
✓ Produktu Homeopatikoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

## Hortz klinika

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

*Nagusia 10, 1.C4* 943 37 08 78 *USURBIL*

Gida honetan azaldu nahi baduzu: ✆ 943 360 321 • publizitatea@noaua.com

# TXOTX!!




AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea




LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867




SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com




ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81




ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL




✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com




AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com